ARAUDIA

1. Lasterketaren izaera

Izaera herrikoia duen errepideko lasterketa da, 5,5 Km-tako luzeera duena (2 itzuli ematen dizkio herriko zirkuito bateri). Durango Kirol Taldeak antolatzen du, Anboto Kirol Eskolen Elkartearen aholkularitza teknikoarekin.
Lasterketa abenduaren 27an izango da Elorrion eta ordutegiak ondorengoak dira:

- Umeentzako lasterketak, 11:45etatik aurrera:
  - Eskolakoak A (2017 edo ondoren jaioak): 450m (zirkuitu bateri itzuli bat)
  - Eskolakoak B (2015-2016 urteetan jaioak): 450m (zirkuitu bateri itzuli bat)
  - Eskolakoak D (2013-2014 urteetan jaioak): 900m (zirkuitu bateri bi itzuli)
  - Eskolakoak E (2012-2013 urteetan jaioak): 1350m (zirkuitu bateri hiru itzuli)
- Lasterketa nagusia 12:30etan

2. Izen ematea

Lasterketa nagusirako (5,5 Km-tako lasterketarako) www.kronoak plataforman egin ahal izango da izen ematea, 4€-tako preziorekin. Egunean bertan ere egin ahal izango da izen ematea Elorrioko plazan, Udaletxeko atarian, 5€-tan.
Umeentzako lasterketetarako ez da aurretik izenik eman beharrik, eta doakoa izango da
Atletismo eskolarako laguntza moduan erabiliko da lortutako dirua.

3. Dortsalen banaketa

Abenduaren 27an, igandea, 9:00tatik 11:00etara, Elorrioko Udaletxeko atarian.

4. Sailkapenak

Umeentzako lasterketak testimonialak izango dira, ez da sailkapenik egongo. Lasterketa amaitzen duten ume guztien izenak alfabetikoki ageriko dira.
Lasterketa nagusian egongo dira sailkapenak, Kronoak plataforman eskuragarri, zuzenean. Lasterketa honetan ondorengo kategoriak egongo dira:

- Gazteak (2007-2010 urteetan jaioak)
- Absolutuak (2006 edo lehenago jaioak)
- Beteranoak A (1977-1986 urteetan jaioak, 40 urtetik gorakoak)
- Beteranoak B (1976 edo lehenago jaioak, 50 urtetik gorakoak)

5. Sarituak

Lasterketa nagusian ondorengoak izango dira sarituak, kategoria desberdinetan:

- Gazteetan
  - Irabazleak (neska eta mutila)
- Absolutuetan
  - Lehen 3 sailkatuak (emakumezkoak eta gizonezkoak)
- Beteranoak A (40 urtetik gorakoak) mailan
  - Irabazleak (emakumezkoa eta gizonezkoa)
- Beteranoak B (50 urtetik gorakoak) mailan
  - Irabazleak (emakumezkoa eta gizonezkoa)

6. Deskalifikazioak

Deskalifikatzeko motiboak ondorengoak izango dira:

- Ezarritako kontrol puntuetatik ez pasatzea.
- Ibilbide osoa ez burutzea.
- Beste korrikalari bati dagokion dortsala eramatea.
- Helmugan dortsalik gabe sartzea.

7. Asegurua

Ofizialki izena emandako parte hartzaile guztiek antolatzaileak kontzertatutako aseguru poliza izango dute eta aseguru horrek probaren ondorioz izandako istripuak bakarrik hartuko ditu bere gain. Inoiz ez ditu bere gain hartuko pairamen edo tara, zuhurtziagabekeria, zabarkeriaz e.a.-ez sortutako istripuak. Ezta lasterketa izango den lekutik eta lekura izandako desplazamenduetan sortutakoak ere.

8. Irudi eskubideak

Antolatzaileek argazkiak eta bideo-grabazioak egin ahal izango dituzte beroketa-aldian, lasterketan zehar eta sari-banaketa ekitaldian.
Lasterketan izena ematean, parte-hartzaileek antolatzaileei baimena ematen diete beren irudia aipatutako jardueretan hartzeko eta irudi horiek lasterketaren eta antolakuntzaren inguruko informazioa eta sustapena zabaltzeko erabiltzeko.